

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA**Foru Gobernu Kontseiluaren 47/2017 Foru dekretua, abuztuaren 3koa, aldatzen duena otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretua, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzkoa**

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuak Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zuen.

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, bere bigarren xedapen gehigarriko 2. puntuari ezartzen duenez, sailatuko egitura funtzional eta organikoko dekretuak foru arau honetan ezarritako eginkizunak betetzeko ardura daukaten administrazio unitateak zehaztuko dituzte.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak proposatzen du hango Idazkaritza Teknikoak bete ditzala 1/2017 Foru Arauan ezarritako eginkizunak, eta horretarako, beharrezkoa da aldatzea 16/2016 Dekretua, haren 8. eta 20. artikuluei beste idatz zati bat erantsiz.

Ikusi dira nahitaezko txostenak.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Dekretuaren 8. artikuluari (Administrazio unitateetako buruen eginkizun orokorrak) h idatz zati berria eranstea; hortaz, lehengo h idatz zatia mugiarazi, eta hura hemendik aurrera i idatz zatia izango da.

"8. artikulua. Administrazio unitateetako buruen eginkizun orokorrak

h. Ahalik eta laguntza gehiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, loturik dauzkan eginkizunak bere gain hartzen dituen sailaren administrazio unitateari."

Bigarrena. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren 20. artikuluari (Euskara, Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua) i) idatz zati berria eranstea.

"20. artikulua. Euskara, Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

i) Politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen ebaluazioa kudeatzea, sailaren eskumeneko arloetan, 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, xedatzen duen moduan.

Azken xedapena. Onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE